# RÈGLEMENT INTERIEUR DU CONSEIL MUNICIPAL DES JEUNES

# de

# SAINT PIERRE D'IRUBE/ HIRIBURU

# HIRIBURUKO GAZTEEN

# HERRIKO KONTSEILUAREN

# BARNE ARAUDIA

PREAMBULE

I. Le Conseil Municipal des Jeunes de Saint-Pierre d'Irube/ Hiriburu

Article 1 : Objectifs du Conseil Municipal des Jeunes
Article 2 : Rôle et fonctions du Conseil Municipal des Jeunes
Article 3 : Engagement des jeune élu(e)s, leurs droits et leurs devoirs
Article 4 : Composition
Article 5 : Durée du mandat
Article 6 : Présidence
Article 7 : Siège

II. Les élections

Article 8 : Corps électoral
Article 9 : Règles de l'élection

III. L'organisation

Article 10 : Séances plénières
Article 11 : Commissions
Article 12 : Comité de pilotage
Article 13 : Relations Conseil Municipal Jeune / Conseil Municipal
Article 14 : Accompagnement des jeunes élu(e)s
Article 15 : Empêchements, arrêt de mandat et remplacement
Article 16 : Responsabilité parents/ jeunes/ mairie

IV. Le budget

Article 17 : Budget

V. Divers

Article 18 : Animation
Article 19 : Droit à l'image
Article 20 : Modification du Règlement intérieur

**PREAMBULE :**

La commune de Saint Pierre d'Irube / Hiriburu a décidé, par une délibération votée en conseil municipal le 30 mars 2023, la mise en place d'un Conseil Municipal des jeunes (CMJ).

Cette décision s'inscrit dans le cadre de la politique active et volontariste que la commune mène en faveur de la jeunesse. Plaçant l'éducation au cœur de son action, la commune accompagne les écoles publiques dont elle a la gestion et les écoles privées afin de permettre aux enfants de bénéficier des meilleures conditions d'apprentissage. Elle propose également un service d'animation périscolaire et s'est dotée en 2014 d'un Projet éducatif de territoire (PEdT) afin d'articuler au mieux les différents temps éducatifs de l'enfant.

Cette décision s'inscrit également dans le cadre de l'engagement fort de la commune en faveur de la démocratie participative. En témoigne notamment la mise en place, outre les classiques commissions municipales, de plusieurs commissions extramunicipales composées d'élu.e.s et de non-élu.e.s afin de donner la parole aux habitant.e.s de la commune sur des sujets aussi variés que l'éducation, la transition écologique ou la politique culturelle.

La création du CMJ répond à la volonté des élu.e.s de la commune de Saint Pierre d'Irube / Hiriburu de donner la parole aux jeunes et de les associer à la prise de décision publique.

Répondant à des objectifs pédagogiques, le CMJ se veut un lieu d'apprentissage de la démocratie et de la citoyenneté apportant aux jeunes une meilleure connaissance des institutions. Il est en effet fondamental que cet apprentissage, évidemment adapté à leur âge, commence au plus tôt, a fortiori dans le contexte actuel de « désengagement associatif », même si Saint-Pierre d'Irube continue de bénéficier d'un tissu associatif riche et dynamique et de désaffection croissante des jeunes pour la politique. Mais le CMJ se veut aussi un outil favorisant l'exercice de la démocratie et de la citoyenneté. Ainsi, sa vocation première est de permettre aux jeunes de s'exprimer et de devenir des citoyen.ne.s engagé.e.s et responsables, à l'écoute des autres et respectueux des points de vue différents. Il doit donc être un espace de propositions, d'échanges et de débats, et constituer ainsi un lieu d'éducation civique complémentaire à l'action de l'école.

Répondant également à des objectifs politiques, le CMJ doit permettre aux jeunes de définir eux-mêmes des politiques correspondant à leurs besoins, d'élaborer des projets tenant compte des possibilités économiques et matérielles et de les mettre en œuvre.

Ce projet nécessite une collaboration active entre les élu.e.s, les services municipaux et les enseignants, étroitement associés au projet, afin d'accompagner au mieux les jeunes dans la réalisation de leurs projets.

Le présent règlement a pour but de clarifier l'organisation et le fonctionnement du CMJ et le rôle de chacun. Il sera certainement amené à être modifié dans les années à venir, en fonction de l'expérience acquise. Toute modification devra faire l'objet d'un nouveau vote par le Conseil Municipal d'Adultes.

# I. Le Conseil Municipal des Jeunes de Saint-Pierre d'Irube/Hiriburu

***Article 1 : Objectifs du Conseil Municipal des Jeunes***

La mise en place d'un CMJ à Saint Pierre D'Irube / Hiriburu a pour but d'initier les jeunes à la démocratie et à la citoyenneté en même temps que de leur permettre de prendre part à la gestion communale et à l'animation de la vie locale en considérant leurs idées, en prenant en compte leurs besoins, en soutenant leurs projets et en les responsabilisant. En substance, il s'agit d'offrir aux jeunes la possibilité de prendre toute leur place au sein de la commune et de ses institutions.

Le Conseil Municipal des Jeunes donne à chaque jeune le moyen de construire sa place au sein de la commune, dans le respect de soi, des autres et de son environnement. C'est un lieu d'expression, de dialogue, d'échanges et de débat visant à construire une pensée collective, fondement d'une citoyenneté active.
La création du CMJ poursuit des objectifs généraux et pédagogiques :

- Permettre aux jeunes d'appréhender la démocratie locale de façon active et ludique et comprendre le fonctionnement d'une collectivité.
- Permettre aux jeunes de devenir des citoyen.ne.s engagé.e.s et responsables ainsi que des acteurs de la vie locale.
- Permettre aux jeunes de s'exprimer et de définir eux-mêmes des politiques répondant à leurs besoins, d'élaborer des projets tenant compte des possibilités économiques et matérielles et de les mettre en œuvre.
- Sensibiliser les jeunes à la prise de responsabilités.
- Développer l'esprit critique constructif.
- Etablir un lien entre les différents temps éducatifs de l'enfant dans le cadre du PEDT.

***Article 2 : Rôle et fonctions du Conseil Municipal des Jeunes***

Le CMJ est un organe de consultation et de propositions, sans pouvoir délibératif. Ses commissions opérationnelles préparent et soumettent des propositions à M. le Maire, qui les fait étudier par les instances municipales compétentes. Après validation, le CMJ les vote en session plénière puis s'engage à les mettre en œuvre.

Le CMJ favorise le lien et les échanges entre les élu.e.s jeunes, les Saint Pierrots et Saint Pierrotes ainsi que le Conseil municipal.

Le CMJ communique les projets qu'il porte auprès de la population.

Le CMJ peut être invité par le Maire aux événements et commémorations de la collectivité.

**Article 3 : Engagement des jeune élu(e)s, leurs droits et leurs devoirs**

Le/la jeune élu.e a reçu l'autorisation de son(ses) responsable(s) légal(aux) et s'engage à s'investir, sans que cela ne gêne sa scolarité, en signant la Charte d'engagement (annexe 1).

Le/la jeune élu.e est le porte-parole des enfants mais aussi de la commune. A ce titre, il/elle a un devoir d'exemplarité.

Le/la jeune élu.e doit participer assidûment aux sessions plénières et aux commissions.

Le/la jeune élu.e doit écouter et être écouté.e, respecter les autres élu.e.s et leurs idées, les différences de point de vue, le temps de parole. Le/la jeune élu.e est soumis.e à une obligation de

courtoisie et de politesse.
Le/la jeune élu.e doit rendre compte de l'action du CMJ auprès des jeunes qui l'ont élu.e.

### *Article 4 : Composition*

Le CMJ est composé de 24 jeunes élu.es répartis comme suit :

- **6** élèves de l'école d'Ourouspoure dont :
  - ➢ 2 élèves en CM2
  - ➢ 2 élèves en CM1
  - ➢ 2 élèves en CE2

- **6** élèves de l'école Basté-Quieta dont :
  - ➢ 2 élèves en CM2
  - ➢ 2 élèves en CM1
  - ➢ 2 élèves en CE2

- **6** élèves de l'école Saint-Pierre dont :
  - ➢ 2 élèves en CM2
  - ➢ 2 élèves en CM1
  - ➢ 2 élèves en CE2

- **6** élèves de l'école Ikastola dont :
  - ➢ 2 élèves en CM2
  - ➢ 2 élèves en CM1
  - ➢ 2 élèves en CE2

### *Article 5 : Durée du mandat*

Le mandat de Conseiller Municipal Jeune est un mandat bénévole de 2 ans.

### *Article 6 : Présidence*

Le CMJ est présidé par M. Le Maire et supervisé par l'Adjoint.e en charge de l'Education.

### *Article 7 : Siège*

Le CMJ a son siège à :
**Mairie de Saint-Pierre d'irube/Hiriburu, 1 plaza berri – 64990 Saint-Pierre d'Irube/Hiriburu.**

Le CMJ peut se réunir soit à son siège, soit dans un autre lieu de la commune.

## II. Les élections

### *Article 8 : Corps électoral*

Les élections sont ouvertes :

- Comme électeur.rice : à l'ensemble des jeunes scolarisés à Saint Pierre d'Irube, à compter de la classe de CE2 et jusqu'à la classe de CM2 et qui résident à Saint-Pierre d'Irube ou participent à une activité associative située sur la commune.
- Comme candidat.e : à l'ensemble des jeunes scolarisés à Saint Pierre d'Irube, à compter de la classe de CE2 et jusqu'à la classe de CM2 et qui résident à Saint-Pierre d'Irube ou participent à une activité associative située sur la commune.

### *Article 9 : Règles de l'élection*

Les élections sont organisées au niveau de chaque école. Les bulletins de vote sont ensuite centralisés à la mairie pour le dépouillement. Les dossiers de candidature sont disponibles en mairie ou sur le site Internet de la commune 4 semaines avant la date prévue des élections et transmises aux écoles concernées. Les candidat.e.s remettent leur profession de foi 2 semaines avant la date prévue des élections à la mairie.

Les élections se dérouleront de la manière suivante :

- Information auprès des jeunes de la commune
- Dépôt des candidatures
- Affichage de la liste des candidat.e.s et de leur programme
- Organisation de la campagne électorale
- Organisation du scrutin
- Dépouillement et proclamation des résultats.

Le scrutin est secret, à un tour, à la majorité relative.

Les électeurs.rices sont appelé.e.s au vote dans le cadre d'une procédure analogue à l'élection municipale. Sont déclarée.e.s élu.e.s les candidat.e.s ayant recueilli le plus de voix dans chaque catégorie.

La parité garçon/fille devra être respectée à chaque fois que cela est possible.
En cas d'égalité entre un garçon et une fille au sein d'une tranche d'âge, sera choisi.e celui ou celle qui permettra de respecter la parité garçon/fille.

Après clôture du scrutin et comptage des suffrages, sous le contrôle du comité de pilotage, les résultats sont proclamés par Monsieur le Maire de Saint-Pierre d'Irube/Hiriburu et affichés en mairie, le jour même.

## III. L'organisation

***Article 10 : Séances plénières***

Le CMJ se réunira en assemblée plénière au moins une fois par an, sauf la première année qui comptera au moins deux réunions plénières (assemblée plénière d'installation et assemblée plénière ordinaire).

L'assemblée plénière est composée :
- du Maire
- de l'Adjoint en charge de l'Education
- des élu.e.s membres de la commission Education
- des Conseiller.e.s Municipaux-ales Jeunes

Le Directeur.trice en charge de l'Education et le Directeur.trice du Périscolaire participeront également aux séances plénières.

La première Assemblée du mandat, dite « Assemblée d'installation » a lieu dans la semaine suivant l'élection. A cette occasion, les Conseiller.e.s jeunes sont amené.e.s à :
- émettre un avis sur le règlement de fonctionnement
- élire les membres des commissions internes

Les Assemblées sont publiques.

Les votes se feront à main levée. Afin de proposer un projet, la majorité des présents doit être acquise. Un quorum pourra être défini collégialement.

Chaque Assemblée fait l'objet d'un compte-rendu, transmis aux élu.e.s jeunes.

***Article 11 : Commissions***

Le Conseil Municipal des Jeunes se réunit au moins 2 fois dans l'année en commission, sur convocation.

Il existe deux commissions à l'installation du CMJ :
- la commission Sport, Loisirs, Culture
- la commission Environnement, Citoyenneté, Solidarité et Communication.

Les jeunes conseiller.e.s travaillent en commission pour mettre au point, avec les services municipaux compétents, les projets qu'ils ont décidés ensemble et/ou faire un point sur les réflexions et actions en cours avec les commissions susmentionnées.

Les commissions peuvent évoluer en cours de mandat, selon les projets réalisés et les éventuelles ouvertures.

***Article 12 : Comité de pilotage***

Le comité de pilotage est chargé de veiller au bon fonctionnement du CMJ.

Son rôle consiste à :
- s'assurer du bon déroulement des élections.
- suivre la vie du CMJ, donner son avis sur son évolution et son déroulement
- faciliter la mise en œuvre des projets et des actions

- veiller au respect de la charte d'engagement

Le comité de pilotage est composé :
- du Maire
- de l'Adjoint en charge de l'Education
- des représentant.e.s de la commission Education

Il peut s'adjoindre des représentant.e.s enseignant.e.s des classes de CM1, CM2 et 6ème.

***Article 13 : Relations Conseil Municipal des Jeunes / Conseil Municipal***

Le référent principal du Conseil Municipal des Jeunes est l'Adjoint.e en charge de l'Education.

***Article 14 : Accompagnement des jeunes élu.e.s***

La collectivité s'engage à coordonner, animer et accompagner le CMJ.

Les projets, les démarches, les réunions techniques et les événements sont encadrés par les élu.e.s adultes référent.e.s. et/ou les agents de la commune référents.

***Article 15 : Empêchements, arrêts de mandat et remplacements***

En cas d'empêchement, les parents de l'enfant ou lui-même doivent prévenir la mairie ou la personne référente du CMJ.

Dans le cas où, pour une quelconque raison, le/la jeune élu.e souhaite démissionner de ses fonctions, il/elle adresse un courrier à l'intention du Maire motivant sa décision.

Le mandat peut également prendre fin ou être temporairement suspendu, après information du responsable légal, pour les raisons suivantes :
- Déménagement (l'élu.e pourra rester jusqu'au terme de son mandat s'il/elle le peut)
- Maladie
- Non-respect du règlement
- Comportement irrespectueux
- 3 absences non justifiées

En cas de démission ou de déménagement d'un Conseiller Municipal Jeune, le/la candidat.e non élu.e ayant recueilli le plus de suffrages est déclaré.e élu.e.

Par ailleurs, afin de garantir la participation du plus grand nombre, le.la jeune élu.e ne peut être candidat.e à sa réélection au terme de son mandat.

***Article 16 : Responsabilité parents/ jeunes/ mairie***

En dehors de ses activités dans le cadre de son mandat, l'élu.e jeune reste sous la responsabilité de ses parents. La commune de Saint-Pierre d'Irube/Hiriburu ne peut donc être tenue responsable des incidents ou dommages qui peuvent survenir en dehors des activités municipales.

L'élu.e jeune s'engage à avoir un comportement respectueux des institutions, des personnes, écouter les propositions et respecter la parole de chacun. En retour, il peut exposer, argumenter ses projets et ses idées. Le/la jeune représente la ville et ses habitants ce qui implique un comportement citoyen exemplaire.

## IV. Le budget

***Article 17 : Budget***

Un budget de fonctionnement est alloué au CMJ, issu des budgets déjà existants votés par le Conseil Municipal.

Les projets seront déposés auprès de M. le Maire qui les fera étudier par les instances municipales habituelles.

## V. Divers

***Article 18 : Animation***

L'animation et la coordination du Conseil Municipal des Jeunes sont assurées par l'Adjoint.e en charge de l'Education, assisté par le Directeur/trice Education et le Directeur/trice du service périscolaire.

***Article 19 : Droit à l'image***

Le/la Conseiller.e Municipal.e des Jeunes, ou son/sa représentant.e légal.e, donne autorisation à la commune pendant toute la durée de son mandat, d'établir des photographies, de réaliser des films et de reproduire ces supports de communication sur ses propres publications, sur son site Internet et sur son site dédié au CMJ, voire auprès d'organismes de presse.

Le Conseiller Municipal des Jeunes, ou son représentant légal, dispose d'un droit d'accès, de modification, de rectification et de suppression des données qui le concernent.

***Article 20 : Modification du règlement intérieur***

Le présent règlement intérieur peut être modifié sur proposition du CMJ, par délibération du Conseil municipal.

Le présent règlement intérieur a été soumis au Conseil Municipal du 30 mars 2023.

A Saint-Pierre d'Irube le 30 mars 2023

Le Maire
Alain IRIART

---

En signant ci-dessous, le(a) jeune élu(e) et ses parents attestent avoir pris connaissance du règlement intérieur du CMJ.

A Saint-Pierre d'Irube le ...... /...... /.........

A Saint-Pierre d'Irube le ...... /...... /.........

Le(a) jeune élu(e)

Le responsable légal

Hiriburu
Saint-Pierre d'Irube

# HIRIBURUKO GAZTEEN

# HERRIKO KONTSEILUAREN

# BARNE ARAUDIA

## AITZIN-SOLASA

I. Hiruburuko Gazteen Herriko Kontseilua

1. artikulua: Gazteen Herriko Kontseiluaren helburuak
2. artikulua: Gazteen Herriko Kontseiluaren rola eta eginkizunak
3. artikulua: Hautetsi gazteen engaiamendua, beren eskubideak eta betebeharrak
4. artikulua: Osaketa
5. artikulua: Agintaldiaren iraupena
6. artikulua: Lehendakaritza
7. artikulua: Egoitza

II. Hauteskundeak

8. artikulua: Hauteskunde-kidegoa
9. artikulua: Hauteskundearen arauak

III. Antolaketa

10. artikulua: Osoko bilkurak
11. artikulua: Batzordeak
12. artikulua: Gidaritza Batzordea
13. artikulua: Gazteen Herriko Kontseiluaren eta Herriko Kontseiluaren arteko harremanak
14. artikulua: Hautetsi gazteen laguntzea
15: Eragozpenak, mandatu uztea eta ordezkatzea
16: Gurasoen/gazteen/Herriko Etxearen erantzukizuna

IV. Aitzinkontua

17: Aitzinkontua

V. Orotarik

18: Animazioa
19: Irudirako eskubidea
20: Barne araudiaren aldatzea

**AINTZIN-SOLASA :**

2023ko Martxoaren 30ean, herriko kontseiluan, Hiriburuko herriak deliberamendua bozkatu eta Gazteen Herriko Kontseilua sortzea erabaki du (GHK).

Erabaki hau herriak gazteriaren alde daraman politika bizi eta boluntaristaren baitan kokatua da. Irakaskuntza bere ekintzen bihotzean kokatuz, herriak bere kargu diren eskola publikoak eta, bestalde, eskola pribatuak, laguntzen ditu haurrek ikasteko baldintza hoberenak ukan ditzaten. Horrez gain, haurren heziketa denborak hobekien lotzeko eskolaldi inguruko denboran animazio zerbitzu bat proposatzen du eta 2014 urtetik goiti Tokiko Irakaskuntza Proiektuaz hornitu da.

Erabakia herriak demokrazia partehartzailearen alde duen engaimendu osoan txertatua da. Horren adierazle dira batzorde arruntetaz gain hautetsiak eta hautetsi ez diren herritarrak bildu dituzten batzordeak. Horietan herritarrek hezkuntza, trantsizio ekologikoa eta politika kulturalari buruz hitza hartu dute.

Hiriburuko hautetsiek gazteei hitza emateko eta erabaki publikoari lotzeko borondatetik dator GHK-ren sorrera.

GHK, helburu pedagogiko batzuei erantzunez eta gazteei instituzioen ezagutza sakonagoa emanez, demokrazia eta hiritartasuna ikasteko gunea izatea nahi dugu. Ikasketa hau lehenbailehen egitea funtsezkoa da gazteek politikarekiko duten atxikimendu-galtzea dela-eta, adinari egokitua segurrik ere eta «elkarteen gibel-egite»-ezko gaurko giroa kontutan harturik, nahiz-eta Hiriburuko elkarteen sare abertats eta biziak badirauen. Bestalde, GHK demokrazia eta hiritartasun ariketarako tresna da. Bere helburu nagusia gazteen adierazpena eta hiritar engaiatu eta arduratsuak izan daitezen laguntzea da, elkarren arteko entzumenean eta ikuspegi desberdinen errespetuan. Proposamen, trukaketa eta eztabaidagunea izan behar du eta eskolako lanaren osagarria, herritar heziketari dagokionez.

Helburu politikoak betetzeko tresna izaki, GHK gazteei beraien beharrei erantzuten dieten politikak zehazteko aukera da. Baita ahalmen ekonomiko eta materialak kontutan hartu eta politika horiek gauzatzeko aukera ere.

Proiektuak hautetsi, herriko zerbitzu eta irakasleen partaidetza estu eta bizia behar du, gazteak beraien proiektuak gauzatzen laguntzeko.

Barne araudi honen helburua GHK-aren antolaketa, funtzionamendua eta bakoitzaren lekua argitzea da. Datozen urteetan, eta esperientziaren poderioz, aldaketa batzuk egin beharko dira seguraski. Aldaketa oro Helduen Herriko Kontseiluaren bozka baten ondorioa izanen da.

## I. Hiruburuko Gazteen Herriko Kontseilua

### *1. artikulua: Gazteen Herriko Kontseiluaren helburuak*

Hiriburun GHK sortzeak helburu desberdinak ditu, gazteei demokrazia eta hiritartasuna ezagutaraztea, gazteek herriaren kudeaketan eta tokiko biziaren animazioan partehartzea. Guzti hori beraien ideia eta beharrak kontutan hartuz, beraien proiektuak sustengatuz eta arduratsuak izaitea ahalbidetuz. Gazteek herrian eta instituzioetan beraiena den lekua hartzea da funtsezko kontua.

Gazteen Herriko Kontseilua gazte bakoitzak norberaren, besteen eta ingurumenaren errespetuan, bere lekua, herrian duen lekua, eraikitzeko tresna da. Hiritartasun aktibo baten oinarria den pentsamendu kolektiboa sortuko duten adierazpen, elkarrizketa, trukaketa eta eztabaidagunea da.

GHK-aren sorrerak helburu orokor eta pedagogikoak ditu:

- Gazteei tokiko demokrazia era dinamiko eta ludikoan barneratzeko aukera eman eta jendarte baten funtzionamendua ezagutaraztea.
- Gazteei herritar engaiatu eta arduratsuak izateko eta bertako bizian aktore izateko aukera ematea.
- Gazteei adierazpena eta beraien beharrei erantzuten dieten politikak osatzeko aukerak ematea. Eta bide batez, ahalmen ekonomiko eta materialak zeintzuk diren kontutan harturik proiektu horiek gauzatu ahal izateko modua ematea.
- Gazteak ardurak hartzera sentsibilizatzea.
- Ispiritu kritiko eraikitzailea eraikitzea.
- PEDT -aren baitan, haurren heziketa tarte desberdinak lotzea.

### *2. artikulua: Gazteen Herriko Kontseiluaren rola eta eginkizunak*

GHK-a, erabakitzeko ahalmenik gabekoa baina iritzi trukaketa eta proposamenerako organismoa da . Bere batzorde operatiboek proposamenak pretsatu eta auzapezari bideratzen dizkiete. Auzapezak eskudun instantziei helaraziko dizkie. Proposamena baliozkotua delarik GHK-ko osoko bilkurak bozkatuko du eta gauzatzeko engaiamendua hartuko du.

GHK-k eragile desberdinen arteko lotura lagunduko du, hautetsi gazte, hiriburutar eta herriko kontseiluaren artean.

GHK-k bere esku diren proiektuak herritarrei zabazlduko dizkie.

Auzapezak, GHK elkargoko gertakari eta oroitzarreetara gomitatu dezake.

***3. artikulua: Hautetsi gazteen engaiamendua, beren eskubideak eta betebeharrak***

Hautetsi gazteak, bere arduradun legalaren/legalen baimenarekin, bere engaiamendua berrestuko du, beti ere bere ikasketak trabatu gabe. Hautetsi gazteak Engaiamendu Ituna izenpetuko du (1. eranskina).

Hautetsi gaztea haurren eta herriaren bozeramailea da eta eredugarria izateko betebeharra du.

Hautetsi gazteak osoko bilkura eta batzordeetan jarraituki partehartu behar du.

Hautetsi gazteak entzuna izan behar du eta beste hautetsiak entzun behar ditu, beraien iritzi eta ikuspegi desberdinak eta hitzartzeen denbora errespetatuz. Adeitasun eta jendetasunezko betebeharra du.

Hautetsi gazteak, hautatu duten gazteei GHK-ren ekintzen berri eman beharko die.

***4. artikulua: Osaketa***

24 hautetsi gaztek osatzen dute GHK:

Uruzpuru ikastegiko 6 ikasle:

> LM5ko 2 ikasle

> LM4ko 2 ikasle

> LM3ko 2 ikasle

Basté-Quieta ikastegiko 6 ikasle:

> LM5ko 2 ikasle

> LM4ko 2 ikasle

> LM3ko 2 ikasle

Saint Pierre ikastegiko 6 ikasle:

> LM5ko 2 ikasle

> LM4ko 2 ikasle

> LM3ko 2 ikasle

Ikastolako 6 ikasle :

> LM5ko 2 ikasle

> LM4ko 2 ikasle

> LM3ko 2 ikasle

***5. artikulua: Agintaldiaren iraupena***

Gazteen herriko kontseiluaren agintaldia bolonatarioa da ta 2 urtez iraungo du.

***6. artikulua: Lehendakaritza***

GHK-aren lehendakaria auzapeza da eta hezkuntzarako axuantak gainbegiratuko du.

***7. artikulua: Egoitza***

GHK-aren egoitza ondoko hau da:

**Hiriburuko herriko etxea, plaza berri,1 – 64990 Hiriburu.GHK**

GHK bere egoitzan edo herriko beste leku batean bildu daiteke.

## II. Hauteskundeak

***8. artikulua: Hauteskunde-kidegoa***

Hauteskundeak irekiak dira:

- Hautesle gisa: Hiriburuko ikasle guztiei. CE2 mailatik CM2 mailara, Hiriburuko biztanleak edo herriko elkarte baten kide baldin badira.
- Hautagai gisa: Hiriburuko ikasle guztiei. CE2 mailatik CM2 mailara, Hiriburuko biztanleak edo herriko elkarte baten kide baldin badira.

***9. artikulua: Hauteskundeen arauak***

Huteskundeak ikastetxe bakoitzean antolatuko dira. Gero, bozka-paperak bozka zenbaketarako Herriko Etxean bilduko dira. Hautagaietarako txostenak, hauteskundeak baino lau aste lehenago, Herriko Etxean edo herriaren webgunean eskuragarriak izanen dira. Dagozkien ikastegietara bidaliak izanen dira. Hautagaiek, hauteskundeak baino bi aste lehenago, beraien hauteskundetako adierazpena aurkeztuko dute Herriko Etxean.

Hauteskundeak behean idatzi bezala igaroko dira:

- herriko gazteak informatuko ditugu
- hautagaitzak aurkeztuko dira
- hautagaien zerrenda eta bakoitzaren programa afitxatuko ditugu
- hauteskunde kanpaina antolatuko dugu
- hauteskundeak antolatuko ditugu
- Bozka zenbaketa eta emaitzak plazaratuko ditugu.

Bozketa sekretupekoa da, itzuli bakarrekoa eta gehiengo erlatiboaren hitzetara.

Hautesleek herriko hauteskundeen prozeduraren arabera bozktuko dute. Sail bakoitzean bozka gehien bildu dituzten hautagaiak hautetsi izendatuko ditugu.

Ahal den orotan, neska-mutikoen arteko berdintasuna errespetatu behar da.

Adin tarte batean neska eta mutikoen arteko berdinketa balitz, neska-mutiko berdintasuna betetzea ahalbidetzen duen neska edo mutikoa hautatua litzateke.

Bozketa eta bozken zenbaketa bukatu-eta, Hiriburuko Auzapezak gidaritza batzordearen kontrolpean emaitzak plazaratuko ditu eta baita ere egunean bertan Herriko Etxean afitxatuko.

## III. Antolaketa

### *10. artikulua: Osoko bilkurak*

Lehen urtean izan ezik, zeinetan gutxienez bi osoko bilkura egin beharko dituen (instalazio osoko bilkura eta osoko bilkura arrunta), GHK gutxienez urtean behin bilduko da osoko bilkuran.

Osoko bilkura osatuko dute:

- Auzapezak
- Hezkuntzarako Axuantak
- Hezkuntzarako komisioko hautetsiek
- Herriko hautetsi gazteek

Hezkuntzarako  Zuzendariak eta eskolaldiaren inguruko denboraren Zuzendariak ere osoko biltzarretan parte hartzen dute.

Agintaldiko lehen biltzarra, “Instalazio biltzarra“ deritzoguna, hateskundeen ondoko astean burutuko da. Honen kari, hautetsi gazteei bi gauza dagozkie:

- ibilmoldearen araudiari buruzko iritzia ematea
- barne-komisioetarako kideak izendatzea

Biltzarrak publikoak dira.

Eskuzko bozkatzeak izanen dira. Proiektu bat aurkezteko bertan daudenen gehiengoa bereganatu behar da. Elkargoaren erabakiz *quorum* bat zehaztu daiteke.

Biltzar bakoitzean agiria idatziko dugu eta hautetsi gazteei bideratuko zaie.

### *11. artikulua: Batzordeak*

Gazteen Herriko Kontseilua gutxienez urtean bi aldiz deitutako komisioetan bilduko da.

GHK-k bi komisiotan parte hartzen du:
- Kirol, aisialdi eta kultur komisioan

- Ingurugiroa, Herritartasuna, Elkartasun eta komunikazio komisioan.

Hautetsi gazteek, herriko zerbitzu eskudunekin batera, adostutako proiektuak martxan ezartzeko komisioetan lan, edota, egiteke diren hausnaketa eta ekintzei buruzko puntua eginen dute.

Agintaldiaren bitartean gauzatutako proiektu eta aukera berrien arabera alda daitezke komisioak.

***12. artikulua: Gidaritza Batzordea***

Gidaritza batzordeak GHK-aren ibilmolde onaren zaintza eginen du.

Bere eginkizuna hau da:

- hauteskundeak behar bezala egin daitezen segurtatzea
- GHK-aren bizimoldea begiratu eta bere bilakaerari eta ibilbideari buruzko iritzia ematea
- Proiektu eta ekintzak laguntzea
- Engaiamendu ituna errespetatua izan dadin zaintzea

Gidaritza batzordea osatuko dute:

- Auzapezak
- Hezkuntzarako axuantak
- Hezkuntzarako komisioko ordezkari batzuek

LM4, LM5 eta 6.ko irakasleen ordezkariak ere erantsi daitezke.

***13. artikulua: Gazteen Herriko Kontseiluaren eta Herriko Kontseiluaren arteko harremanak***

Hezkuntzaz arduratzen den axuanta Gazteen Herriko Kontseiluaren erreferente nagusia da.

***14. artikulua: Hautetsi gazteei laguntzea***

Elkargoak, GHK-a koordinatzeko, animatzeko eta laguntzeko engaiamendua hartu du

Hautetsi heldu erreferenteek edota herriko agente erreferenteek proiektu, urrats, bilkura tekniko eta ekimenak gidatuko dituzte.

***15. Eragozpenak, mandatu-uztea eta ordezkatzea***

Eragozpen baten kasuan, haurrak edo bere gurasoek Herriko Etxea edo GHK-ko pertsona erreferentea abisatu behar dute.

Arrazoi bat edo beste bat dela, hautetsi gazteak kargua utzi nahi balu, Auzapezari bere erabakia gutun arrazoitu baten bidez helarazi beharko dio.

Bestalde, agintaldia gelditu edo pausan ezarri daiteke arduradun legalak ondoko arrazoietako bat azalduko balu:

- Aldaira bat (Ahal balu hautetsiak bere agintaldia bururaino segituko luke)
- Eritasun bat
- Araudia ez errespetatzea
- Errespeturik gabeko jarrerak
- Arrazoirik gabeko 3 falta egitea

Hautetsi gazte baten kargu-uzte edo aldaira baten kasuan, bozka gehien bildu zituen hautagai gaztea hautetsi bilakatuko da.

Partehartze zabala lortzeko, hautetsi gaztea datorren agintaldirako berriz hautagai izatea ezinezkoa da.

***16. Gurasoen/gazteen/Herriko Etxearen erantzukizuna***

Agintaldiaren kanpoko bizian hautetsi gaztea bere gurasoen ardurapean da. Hiriburuko Herria ez da herriko aktibitateetatik kanpo gerta daitezkeen istilu edo kalteen arduradun egingo.

Hautetsi gazteak instituzioeei eta pertsonei errespetuzko jarrera erakusteko engaiamendua hartzen du, baita proposamenak entzutearena eta denen hitza errespetatzearena ere. Trukean, bere proiektu eta ideiak aurkezteko eta arrazoitzeko aukera du. Ordezkari gazteak herria eta bere biztanleak ordezkatzen dituen heinean, herritar ereduqarria izan behar du.

## IV. Aitzinkontua

***17. Aitzinkontua***

GHK-aren funtzionamendurako aitzinkotua, Herriko kontseiluan bozkatu diren aintzikontuetatik datorrena da.

Proiektuak auzapezari bideratu eta berak ohiko herriko instantziei azterketarako zuzenduko dizkie.

## V. Orotarik

***18. Animazioa***

Hezkuntzaz arduratzen den axuantak, Hezkuntza Zuzendariaren eta eskolaldi inguruko denboraren zerbitzuko Zuzendariaren laguntzaz, gazteen herriko kontseilua animatu eta koordinatuko du.

***19. Irudirako eskubidea***

Agintaldiaren bitartean, gazteen herriko hautetsiak edo bere ordezkari legalak baimentzen du herriak bera argazkitan hartzea, filmeak egitea eta berak argitaratutakoa, izan bere webgunean edo GHK-ari buruzko webgunean, herriaren euskarrietan eta komunikabideetan erabiltzea.

Gazteen herriko hautetsiak edo bere ordezkari legalak, dagozkion datuen gaineko eskubideak ditu. Ikusteko, aldatzeko, zuzentzeko eta kentzeko eskubideak hain zuzen ere.

***20. Barne araudiaren aldatzea***

Barne araudia aldagarria da, GHK-k hala proposatuko balu eta herriko kontseiluaren deliberamendua halakoa balitz.

Gaurko barne araudi honako hau, 2023. urteko Martxoaren 30ean herriko kontseiluan aurkeztua izan zen.

Hiriburun, 2023. urteko Martxoaren 30ean

Auzapeza

Alain Iriart

Behean izenpetuz, hautetsi gazteak eta bere gurasoek GHK-aren barne araudiaz jabetu direla zin egiten dute.

| | |
|---|---|
| Hiriburun ………. /…... /…...(e)an | Hiriburun ………. /…... /…...(e)an |
| Hautetsi gaztea | Arduradun legala |